

## 19.– DANA URRE: MIDAS ERREGEA

(Frijia)

Frijia'ko erregea zan Midas. Bere jauregian urre ta pitxi asko eukan, beste edozeiñen biotza asetzeko beste. Baiña Midas'en biotza ez zan asetzen. Gozonik aberatsena izan nai eban.

Midas erregearen diru-goseagaz naikituta egoan Jupiter eta onen biotza aldatzea otu jakon.

Sileno zarra bizi zan beste leku baten Bako'ren irakasle izana. Oneri Midas erregeak mezede bat egin eutson eta mezede ori ordaintzeko berak nai ebana eskatzeko esan eutson Bako'k:

— Auxe gura neuke esan eutson Midas'ek: Ikututen dodana dana, urre biurtu daitela.

Arrituta geratu zan Bako jainkoa ori entzun ebanean, baiña, Jupiter'ek esanda, auxe erantzuna emon eutson:

— Zure gurari ori betetuko dot, baiña ziur nago laster damutuko zarala eskari ori egiñaz.

Lari egoan Midas estubide ori zenbateraiñokoa zan ikusi arte. Artu eban bere eskuetan orio-ondoaren adartxu bat eta zoraturik ikusi eban urrezko biurtu zala. Urrengo loratxu bateri usain egin gura izan eutson eta loratxua be urre biurtu jakon. Ikututen eban dana biurtzen jakon urre! Baita ankapean zapaltzen ebazan bedarrak eta arri-koskorak be.

Urrengo, jauregira joan zan, jesarri zan gela nagusiko jesarlekuan eta eskuakaz ikutu ebanerako, urrezko biurtu jakon au be.

Sinistu-eziñeko poza eukan Midas'ek! Jazokizun aundi ori bear dan lez ospatzea otu jakon. Deitu eutsen mirabe guztiai eta bere jauretxean iñoz izan ez zan lako bazkari bat gertatzeko agindu eutsen.

Jesarri zan maian bere aundikiakaz batera eta mirabeak asi ziran bazakari zoragarri ori ekarten.

Baiña erregearen zori txarra! Ezer ezin iruntzi. Jakiak, ogia, ardaoa be eskatu eban eta onena ekarri eutsoen, baiña berak ikutu orduko, urre biurtzen jakozan ontziak, jakiak eta edariak! Maiaren erdian zidarrezko ontzi eder bat egoan era guztietako igalez beterik, begien zoragarri, eta bat artzeko asmotan eskua luzatu eta bat artu ebanean, urre biurtu jakozan ontzia ta igaleak. Asarretuta ezer jan barik jagi zan maitik!

Eskubide onegaz samaraiño beteta egoan, ondo damututa zorakeri ori eskatu ebalako eta pozik itziko eban barriri ainbat gura izan eban eskubide ori. Izan be, inguru guztia egoan dana urre biurtuta eta bera egarriz ito-bearrean.

Zertarako ainbeste urre! Eta oraindiño zori txar geiago ekarri bear eutson eskubide orrek! Gozeak illik ikusten eban bere burua eta urrezko biurtu zan jesarlekuan jesarrita, esku biakaz

aurpegia estaldu eban eta zoritxar biurtu jakon gurari bizia zan bere pentsakizun bakarra.

Olako une baten bere alabatxu maite-meitea etorri jakon eta beste ezer egin baiño lenago besarkatzen eta laztantzen asi jakon, eta biotza erdibitu jakon: Urre biurtu jakon bere besoetan alabatxua!

Negar baten etxun zan lurrean gizajoa, eta arren bai arren asi zan eskatzen jainkoai, kentzeko berari almen kaltegarri ori. Len ainbeste maite eban urrea, orain gorrotogarri biurtu jakon eta eskari barria egiten eban artean, lurrean etxunda barau egin eban. Orretan jainkoaren erantzuna etorri jakon:

— Entzun dogu zure eskaria. Zoaz Patroklo ibaira eta ango uretan buzti zaite eta galduko dozu almen ori.

Almen ori emon eutson Bako bera zan Jupiter'en erabagi ori ekarri eutsona. Ikusi eban jainko nagusiak ikasi ebal Midas'ek berak emon gura izan eutson irakatsia eta kendu eutson almen ori.

Beingoan joan zan Midas Patroklo ibaira eta an bere burua busti eban. Arrezkero ibai ori entzute aundiko biurtu zan, bertan urre-kozkorak aurkitzen ziralako.

Etixeratu zan Midas erregea eta pozik ikusi eban kenduta eukala zoritxarreko almena. Laster etorri jakon bidera urre biurtuta itzi eban alabatxua. Artu eban besoetan eta eskerrak emon eutsozan Jupiter'eri zoritxarreko almena kendu eutsolako.

gero bizi izan eban barau gogorra ausi eta bere burua asetu eban, ogi-zatiak eta ur-zurrutak mundu onetako aberastasunik aundiena zirala uste izanik.

Arrezkero beste bat izan zan Midas erregea eta ez eban geiago bere zoriona urre ta lurreko ondasunetan ipinten.

OLAZAR'tar Martin'ek

